

erantzuguazu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

Non dago baserriaren etorkizuna?

Non dagoen baserriaren etorkizuna?

Baserriaren etorkizuna nekazaritza iraunkor batean eta herri baten eraikitze eta antolatzean, gizarteak dituen konpromezu zein ardura politikoak bete-tzean datza. Hau da, baserriak gizartearen-tzako eduki dezakeen zentzu poetikoaz gain inguru edota sektore ekonomiko bizi garrantzitsu bat bezala kontsideratu behar da.

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizena eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

Esnea, haragia, ez-tia, barazkiak, fruituak... ekoiztuz, jarduera horretatik, ingurugiroa zaindu eta gizartea elikatze bizi den sekto-rean. Horretarako, nekazaritzak politika eta plangintza propioak behar ditu, eta baserri-tarrek, beste edozein biztanlek dituen zerbi-

tzuez (osasun zerbitzuak, eskola, haur-tzandegiak, garraioa, argia, ura...) baliatze-ko aukera eta eskubi-dea behar dute. Horre-tan datza gizartearen ardura politikoa eta konpromezua. Baserri-tarrok berriz, ahalik eta elkartasun handie-naz jokatu behar dute,

formatzeko, baserriko gestioa eta errentak hobetzeko, lurra oinarri baliabide gehienari ahalik eta etekin gehiena ateratzeko, komertzializazio bide berriak urratzeko, bizi kalitatea hobetzeko, etorkizuna ziurtatze-ko... Bi alderdi hauen oreka apurtzen den une beretik, baserri-tarrak desagertu joango dira. Aukera denon esku dago. **Xabier Goikoetxea** (Donostia)



galdeiozu...

Txillardeggi

IDAZLEA

Zelakoa zen Telesforo Monzon?

Unax Irazabal [Zornotza]



TELESFORO ABERTZALEA zen gottik behera, hezurre-taraino. Independentista eta Euskal Herri batuaren aldekoa. Horrez gain, pentsatzen denaren aurka, oso gizon pragmatikoa zen. Eta horregatik moldatzen zen oso ondo politikan. Eta arazo ideologikoak eta ez zituen oso serio hartzen. «Hori zuentzat da», esaten zion. Politika gizonekin egin behar de-nez, pragmatikoa zen oso. Funtsean *baserri-tarra* zen.

Martxoaren 2tik aurrera

Imanol Lazkano • EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEKO

LEHENDAKARIA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.

Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-rrero baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu behar du. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Torturarik ez

Nahiz eta gizartearen kontzientzia eta ardura handiagoa izan tortura-ren erabilpenaren aurrean. XX. mendeko gaixotasun honen aurrean Torturaren Kontrako Narratzai-le Internazionalak ondo baino ho-beto definitzen duen bezala, prakti-ka gizatxar hauek jasan dituzten euskal herritarren salaketak epai-tegietan piltzen dira.

Deustuko lau auzokideen ka-suan, N.Z.M., O.A.S., N.O.M. eta E.O.M. Polizia espainola eta Guar-dia Zibilaren eskuetan jasadako torturak salatu zituzten Bilboko Auzitegian.

Orain arte tortura desagertzeko borrokan inplikatu diren gizarte eragile ezberdinen lana oso baikor-ki balioztatzen arren, jakin badakigu *gizarte osoaren lan bateratuarekin* bakarrik lortuko dugula tortura gure herritik desagertzea.

Bide honetatik, Bizkaiko Auzite-

gi Probintzialaren 3. Saila datorren otsailaren 18an N.O.M. ek ezarrita-ko salaketa artxibatuta nahi izateak sortzen duen haserreaz gain, baita ere kezkatu egiten gaitu.

Ondorioz, Deustuko Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzorde-ak adierazten dugu:

1.- N.O.M. en tortura salaketaren ardbaketa posibilitatearen kontra gure desadostasuna adieraztea.

2.- Euskal herritarrek hiru eta bost egunez inkomunikaturik edu-kitzeko legegintza abantailaren de-sagerpena eskatzea.

3.- Deustuar guztiak, datorren otsailaren 12an gure herriko kalee-tatik, «Poliziaren zigorgabetasuna-*ren kontra, torturarik ez!*» lemape-an egingo den manifestaziora gon-bidatzea, gertakizun hauen aurrean gure desadostasuna eta

ardura adierazteko. **Iker Bilbao • DEUSTUA (BIZKAIA)**

Eduardo Gil Berari erantzunez

Otsailaren 25eko EGUNKARIAn, *Tratuak* izeneko artikuluan, beste hainbat gauzaren artean, *Argia* astekariak berari egin eta plazara-tu ez zuen elkarrizketa baten aipa-mena egin du. Hona zenbait argi-bide Eduardo Gil Berarentzako eta orohar irakurlearentzako:

1.- Eduardo Gil Berak uste badu *Argia*-n berak «san akordio» eta «gainerako sainduez» pentsatzen duena esateko inolako mugarik izan edo izango duela (elkarrizke-tan bezala iritzi artikuluetan), oso oker dago. *Argia* irakurtzen duen

edonork oso ondo dakien moduan. Gure independentziak, eta infor-mazio eta adierazpen askatasuna-*rekiko* dugun konpromisoak duten prezioaz ere nahi adina informazio eskainiko diogu Eduar-do Gil Berari, nahi duenean.

2.- *Argia* astekariko kolabora-tzaile batek egin zion elkarrizketa. Ikusten denez, Gil Bera bera ere ez zen oso gustura geratu planteamenduarekin. Erredakzioan emai-tza aztertu genuen eta bere hartan plazaratzeko modukoa ez zela iri-tzi genuen. Gil Bera idazle interes-garri bat dela eta elkarrizketa on bat egin behar geniola garbi edu-kiz.

3.- Eduardo Gil Beraren emazte-arekin honetaz hitz egin genuen eta sentitzen dugu gure mezua edo guk ongi komunikatu ez edo berak osorik ulertu ez izana. Ea hurren-goan zorte hobea dugun. **Pello Zubiria** [*Argia* astekariko zuzen-daria] • LASARTE

• MONTXO •

